

Xabier Montoiak itzulera musikala eta literarioa egingo du datorren asteotan. Bere azken diskotik sei urte igaro direnean, “Gorraizea” deiturikoa kaleratuko du Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin. Oraingoan, ohiko kolaboratzaile Ibon Rodriguezekin batera, soka laukote baten konpainian dakar hamar kantaz osaturiko lana, hain zuzen, Itziar Lertxundi txelo jotzaileak, Xabier Zeberio lehen biolinak, Leire Pikabea bigarren biolinak eta Monika Peiro biola jotzaileak osaturiko soka laukotearen konpainian. Elkarrekin sortu duten “Gorraizea”-n musikariaren betiereko amorrua eta hauskortasuna, soka klasikoen artean, inoiz baino ederrago ageri da. Bestetik, idazlearen “Hitzontziak” nobela plazaratuko du Susa argitaletxeak laster. Sormen emari honen gakoak deskubritzeko ahalegin bat da hau.

Zein da zure lehen oroitzapen musikala?

Lehen oroitzapen musikala Gasteizko gaiteroak dira; diana jotzen zuten eta nik ohetik entzuten nituen etxe aurretik pasatzen zirenean. Horixe, gaiteroak kalean gora. Etxean ez zen musikarik entzuten, ez zegoen entzuteko ezer, zegoen gauza bakarra irrati bat zen. Telebistarik ez zen egon oso berandu arte. Orduko irratieta-ko musika entzuten genuen, alegia, oso gutxi. Eta entzundako horretatik benetan hunkitu ninduen soul musika izan zen. Hunkitu eta liluratu. Eta lilura horrekin geratu nintzen bizitza osorako, 60ko hamarkadan irratian Gasteizen entzuten nuen soul musikare-

«Nire musikan
desagertu dena
elektrizitatea da,
biluzten joan
naiz»

na, Wilson Pickett, Otis Redding, Aretha Franklin...

Eta zein da lehendabiziko oroitzapen literarioa, idazteko gogo piztu zizuna?

Seguru aski Enid Blytonen “Bostak”, niretzat “Los cinco”, eta komikiak; Asterix, Tintin. Idazten hasteko gogo piztu zidan testuari dagokionez, ez nago seguru, beharbada Pio Baroja. Ez dakit. Gogoan dudana da garai berean nire izebak oparitu zidala tapa gogorreko agenda bat, oso dotorea, eta hor hasi nintzen western bat idazten, “oesteko” nobela bat idazten, zortzi urte izango nituen eta noski, ez nuen inoiz bukatu. Horiek dira idazketari buruz dauzkadan lehen oroitzapenak.

Nola hasi zinen musika munduan?

Oso musikazalea nintzen eta Gasteizko kontserbatoriora joan nahi nuen ikastera, baina etxean esan zidaten horretarako dirurik ez zegoela, eta, ondorioz, ez nintzen sekula joan. Gero, Londresen bizi nintzenean, punkaren garaian, *squat* [etxe okupatu] handi batean bizi nintzela, han sortu ziren bi edo hiru talde. Nik jakin banekien nirekin bizi zirenak baino askoz musikazaleagoa nintzela, eta orduan pentsatu nuen lehen aldiz: hauek ez badakite musikaz eta hala ere taldeak sortzen badituzte, nik, zergatik ez dut egingo? Argi neukan nik neuk ere egin nahi nuela punk talde bat, baina ez han, Londresen, baizik eta Gasteizen. Eta pentsatu nuen Hertzaizak izeneko talde bat egitea, izen horrekin, bai. Eta euskaraz arituko zen taldea izango zela ere pentsatu nuen. Artean ni erdalduna nintzenez, euskaraz ikasi beharrean

XABIER MONTOIA


MUSIKARIA ETA IDAZLEA

«Gorraizea» diskoa eta «Hitzontziak» nobela aurkeztuko ditu datozen egunetan. Ahots oso propioa duen sortzaileak bere emariaz hitz egin du, baita emari horren jatorriaz eta bide bihurrituez ere.

YURRE UGARTE



«Nire zortzi orduko lanak sekulako askatasuna eman dit beti nahi izan dudana, nahi izan dudan moduan, edo ahal izan dudan moduan, behintzat, egiteko. Nire lana baliatu dut askatasun horren truke»



Argazkiak: Isabelle MIQUELESTORENA

nengoen. Eta beraz, horixe egin nuen Londresetik itzuli nintzenean, euskaraz ikasi eta taldea sortu.

Disko bat egiteko hasieran zenituen gogo eta arrazoi berak dituzu gaur egun?

Ez, inolaz ere ez. Garai hartan disko batek zeukan balio soziala erabat ezberdina zen; oso jende gutxik kaleratzen zuen disko bat, orain ez bezala. Orain edonork egin dezake disko bat. Musikak orduan zeukan garrantzi soziala eta egun daukana oso ezberdinak dira. Zeharo aldatu da orduko onarpen soziala eta egungoa; lehen musika gauza berezia zen, egun, ordea, batere ez.

Digitalizazioak musika munda ekarri duen aldaketa ez al da positiboa?

Bai, bai, oso positiboa da. Demokratizatu egin da dena. Na-

zioarteko diskoetxeak ahuldu eta zigilu independenteak, nolabait, sendotu ditu egoera berriak, baina, aldi berean, gertatu da sozialki musikaren baliogabetze hori. Lehen gauza bakana eta berezia zen. Orain, zabaldu denez, ez da hain gauza berezia, galdu du lehen zeukan distira hori, berezitasun hori. Edonork, ordenagailu batekin, etxean egin dezake disko bat. Ez duzu estudio zoragarri bat behar, lehen gertatzen zen bezala. Sorkuntzari begira zoragarria da. Sozialki ere bai, demokratizatu delako eta abar, baina hain justu horrek ekarri du musikak sozialki garrantzia galtzea.

Zure baitan zer ezberdintasun dago?

Niretzat, pertsonalki, lehen dena zen berria, dena neukan deskubritzeko, dena zen aurikuntza, etengabe. Orain, ez.

Izan daiteke, eta batzuetan hala da, baina ez neurri berean, inolaz ere. Disko honen kasuan, kantan duela bost urte egin nituenez, alde batetik liberazio moduko bat izan da. Poza hartu dut, kantu horiek burutik kendu ditut eta orain beste batzuk egin ditzaket.

M-ak taldearekin bost disko argitaratu zenituen; bakarka, sei. Literaturan, besteak beste, sei narrazio liburu, zazpi nobela eta lau poesia liburu, guztiak ere lanbide finko bat izan duzun bitartean argitaratuak. Hau da, zure liburu eta diskoen salmenta kopuruaz ez duzu inoiz arduratu behar izan. Horrek zer eragin izan du zure sorkuntzan?

Hala izan da eta eragin ona izan du, eman didalako sekulako askatasuna beti nahi izan dudana, nahi izan dudan moduan, edo ahal izan dudan mo-

duan, behintzat, egiteko. Nire zortzi orduko lana baliatu dut askatasun horren truke. Garai batean sortu zitzaidan zantza, musikan profesionalki aritu edo ez, eta ezetz erabaki nuen. Gero, justu kontrakoa erabaki zutenak egin duten bidea ikusita, benetan asmatu nuela uste dut, ni behintzat oso pozik nago orduko erabakiarekin eta berriz egingo nuke gauza bera. Egundora libre gehiago daukat eta horri esker ahal izan dut diskoa grabatu eta nobela idatzi.

Zer bideratzen duzu musikara eta zer idaztera?

Bai literaturan eta bai musikan gehienetan abiatzen naiz intuizio batetik, alegia, ez dut plan bat izaten ez musika egiteko ez idazteko. Hasten naiz idazten eta testuak sortzen dira. Gitarra jotzen dut eta melodiak etortzen zaizkit burura.


Musika daukadanean, hasten naiz pentsatzen doinu horrek zein hitz mota, zein testu mota eskatzen didan. Nire kasuan behintzat, nolabait, musikak jarritako giroak baldintzatzen ditu hitzak, nolabait musikak ematen dit gero joango diren hitzen zantzuak.

Galderari zehazkiago erantzunez, ideia batzuk egokiagoak iruditzen zaizkit kanta bat egiteko eta beste batzuk ipuin baterako edo nobela baterako. Zeren arabera erabakitzen dudana, ordea, ez da kontzientea; badakit hala dela baina ezingo nuke esan zergatik. Aldi berean, ideia berberarekin egin dezaket kantu bat eta ipuin bat, esate baterako.

Zer deritzozu egungo Euskal Herriko sorkuntzaren egoeraz?

Sorkuntzaren mundua handiegia da niretzat uste sendo

«Hemen, musikarien kalitatea, kantitatea eta barietatea inoiz baino handiagoa da. Zoritxarrez, daukaten harrera gero eta eskasagoa da. Jada esan dut»



bat izateko, ez daukadan informazio asko beharko nuke eta sorkuntzaren alderdi guztiak ez ditut ezagutzen. Pop edo herri musika eta literatura apur bat ezagutzen ditut. Herri musika sorkuntza aldetik zoragarri ikusten dut, beharbada inoiz baino hobeto. Literaturaren kasuan ere, berdintsu, baina neurri txikiago batean. Sortzaileak alde bate-tik gero eta hobeto ari dira.

Hemen, musikarien kalitatea, kantitatea eta barietatea inoiz baino handiagoa da. Zoritxarrez, daukaten harrera gero eta eskasagoa da. Jada esan dut. Eta ez naiz ari nire lanaz bakarrik. Orokorrean. Literaturan ere gauza bera gertatzen da, baita zinema munduan ere.

Zer baloratzen duzu sortzaile batengan? Miresten duzu inor?

Sei-zortzi ordu beharko genituzke miresten ditudanen zerrenda egiteko eta seguru aski ez genuke bukatuko.

Baloratzen dut sortzaile ipurterrea izatea, alegia, konformista ez izatea, ez gelditzea beti behin eta berriz gauza bera egiten. Edozein sortzaile-rengan horixe da preziazten dudana. Bertan goxo ez gertzea, formula bat aurkitu eta hortik bizitza osoan ez bizitzea, formula hori edozein delarik ere. Uste dut artistak bere buruari erronkak jarri behar dizkiola, eta, batez ere, errepikapenaren kontra egon behar dela beti. Batzuetan nahi gabe bere burua errepikatuko duen arren, baina behintzat nahi gabe.

Hori kontuan izanda, zer da arrakasta zuretzat?

Bi mota bereizten ditut. Bate-tik, sortzaile bakoitzak bere buruarekiko daukan erronka, sorkuntza lana hasten denean bere buruari ipinitako erronka; hori betez gero, artistikoki arrakasta eduki du. Gero, bestetik, arrakastaren alde soziala dago, eta hori, niretzat, beste-entzat den berbera da. Badaki-

gu zer den; musikaren kasuan, disko asko saltzea eta onarpen soziala izatea. Bi horien artean kasuistika zabala da.

1983an argitaratu zenuen lehen diskoa M-ak taldearekin eta baita zure lehen poesia liburua ere. Ibilbide horretan, rock-and-rolletik soka laukote batekin grabatzera igaro zara; «zarata» desagertzen joan da, hitzak nabarmentzen...

Hitzen garrantzia berdin-berdina da, diferentzia bakarra da nik orduan ez niela ematen, subjektiboki, eta orain gehiago ematen diedala. Baina, beharbada, lehen, pentsatu gabe, orain baino hitz hobeak egiten nituen. Orain kontzienteagoa naiz eta saiatzzen naiz, lehen ez bezala. Aldatu da nire jarrera. Emaitzak orain hobeak diren, ni ez nintzateke ausartuko esaten. Lehen esan dudanarekin dauka zerikusia: saiatu naiz ez errepikatzen nire burua eta horrek ekarri nau soka laukotearekin grabatzera. Baina lehenik pasa naiz rock-and-

rolletik, pasa naiz musika elektronikotik... Nire musikan desagertu dena elektrizitatea da, biluzten joan naiz. Disko honen hazia, aurreko diskoan dago.

Montoiaren mundu miresgarrian, hor jada txelo baten presentzia zegoen.

Bai, gertatu zitzaidan txeloaz maitemindu nintzela. Ezin nuen nire musika txelorik gabe imajinatu. Bateriarik gabe, gitarrarik gabe, teklaturik gabe, baxurik gabe, bai, baina txelorik gabe, ez. Beraz, txeloaren erabilpen horretatik abiatuta, nire ustez hurrengo urrats logikoa zen soka laukote bat. Orkestra batekin ezin izan dudanez grabatu...

Eta zer-nolako esperientzia izan da soka laukote batekin grabatzea?

Faszinantea. Beste unibertso batean sartzea izan da. Nik ez dakit musikaz, ezin dut partitura bat irakurri. Beti senak aginduta egin dut, senak era-


man nau egin dudana egitera. Eta orduan hara non egiten dudan topo nire musika entzun ez duen jendearekin, nitaz ezer gutxi dakiena. Baina nik ematen diot papertxo bat eta bost minutuan dena entzuten da nik neure buruan entzuten dudana bezala. Hori niretzako mirari bat da. Eta mirari hori gertatu da. Oso esperientzia aberasgarria izan da, beste unibertso batean sartu naiz, musika klasikoarenean, sekulan ezagutu eta zapaldu ez dudana unibertso bat.

Hastapenetan norbaitek esan izan balizu soka laukote batekin grabatuko zenuela...

Pikutara bidaliko nuke istantean. Baina, kantak dioen bezala, «la vida te da sorpresas».

«Gorraizea», zer dela eta?

Izenburu bat behar zen eta beste bat neukan pentsatuta, baina, azken momentuan, nik gorraize pixka bat daukadanez eta diskoa nahiko apartekoa denez nire orain arteko bide-



an, pentsatu nuen gorraizearen kontzeptua egokia zela kanta hauetarako, nik bizitzaren momentu honetan daukadan girorako. Nolabait jasotzen du nire bolada honetako esperientzia pertsonala alde batetik eta baita diskoarena ere bestetik. Lehen aipatu dugun elektrizitatea, hain zuzen ere, hori markatu nahi nuen izenburu horrekin, ze, nire kasuan, daukadan gorraizea nik egozten diot bi gauzari. Bata, kaldereria batean lanean eman nituen urteak, eta, bestea, urte pila bat ibili naizela rock-and-rolla jotzen; badakizu, anpliak, bateria... dena oso ozen. Bi arrazoi horiei zor diet gorraizea, seguru aski.

Hitzetan, denboraren iragaita eta memoria modu ezberdinetan, baina behin eta berriaz, azaltzen dira ia abesti gehienetan.

Bai, azken finean, zer gara gu? Adin batetik aurrera, batez ere, memoria gara; momentu honetan nire bizitzan askoz

gehiago da atzean daukadana aurrean daukadana baino. Beraz, beharbada horregatik azaltzen dira hitzetan. Hala ere, uste dut gai hauek beti egon direla nire sorkuntzan, lehen poesia liburutik. Ez da arraroa gai horiek agertzea. Nire obsesioak oso obsesiboak dira eta oso mugatuak, alegia, ez dauzkate asko baina daukadanak oso sendoak dira. Denboraren iragaitea beti izan da nire gai nagusia; iruditzen zait txikitatiki horren kontzientzia oso zorrotza izan dudala beti.

Seaska kanta bat dago, baita Avilako Teresa santuaren aipu bat ere... Zu bezalako materialista-marxista bat Avilako Teresa santu mistikoaren poema baten hitzak aipatzen, nolatan?

Nire bizitzan katolizismoa inportantea da. 13 urte nituenetik atea naizen arren, nire heziketa oso erlijiosoa izan zen. Biblia eta Bibliako iruditeria guztia askotan agertzen da nire lanean; "Azken afaria", "Gol-

gota", besteak beste. Hala, kanta hori idazten ari nintzela, falta zitzaidan errima bat, azken esaldi bat, eta orduan, bat-batean etorri zitzaidan «*mue-ro porque no muero*» esaldia, Avilako Teresa santuarena, oso ezaguna den esaldi bat. Errimatzen zuen eta esanahi aldetik ere ondo uztartzen zen kantarekin. Sekula ez dut gaztelaniazko esaldi bat sartu nire kantetan eta seguru aski hau izango da azkenengo aldia, baina gutizia hori onartu nion neure buruari.

Literaturan, poesia idaztera ez zara itzuli.

Poesia ezin da bilatu. Poesiak aurkitu egiten zaitu. Nire esperientzia hori da behintzat. Nik ezin dut esan "hemendik aurrera poemak idatziko ditut". Etortzen zaizkit edo ez zaizkit etortzen. Eta etorri zitzaidan azkena "Pop pilulak" aldizkarian argitaratu zen due-la bi urte, "Azken argazkia" izenekoa. Azken hamazazpi urtetan poema bakar horixe

idatzi dut. Poesia azaltzen zait. Jaungoikoa Ama Birjinari bezala. Agertu zitzaien usoa. Nire usoa poesia da, baina ni ez naiz Ama Birjina!

«Hitzontziak» du izen zure nobela berriak. Zer dakarzu hor?

Lau ahots denboran atzera eta aurrera egiten, nolabait nire belaunaldiaz hitz egiten haietariko bi. Bizitzaz hitz egiten, memoriaz, iraganaz... Beste biak bi emakume dira, bat zaharragoa eta bestea egungo gazte bat, kontrapuntua ematen duena, memoria ariketari errealitatea kontrajartzen dio-na. Gai asko darabilte lau ahotsek: ispiluak, maitasuna, politika, artea, drogak...

«Azken afaria» nobela argitaratu zenuenean honakoa esan zenuen: «Bartzelona futbol taldearen gorabeherak euskal literaturarenak baino gehiago kezkatzen naute». Gaur egun horrelakorik esango al zenuke?

Bai, eta areagotuta, esango nuke! Horrekin ez dut esan nahi Bartzelonaren emaitzak berez euskal literatura baino garrantzitsuagoak direnik Euskal Herriarentzat. Euskal literatura Bartzelona baino inportanteagoa da, noski, baina, niretzako, barçazalea naizen aldetik, eguneroko bizitzan, askoz gehiago kezkatzen nau Barçak zer egingo duen Txapeldunen Ligan euskal literaturako azken lanak baino. Ez da *boutade* bat, literatura gehien interesatzen zaidan gauzetariko bat da, baina literaturarekin 24 orduz nago, denbora guztian. Nik esango nuke begirada literario bat daukadala eta mundua literaturatik begiratzen dudala. Eta gauza bera gertatzen zait Barçari begiratzen diodanean, ze, nik, Barçarena, literaturaren filtrotik iragazten dut.

Literaturan gehien interesatu zaizuna azkenaldian?

Izenak ez aipatzearen, esango dut gero eta gutxiago interesatzen zaizkidala istorioak; eta, aldiz, gero eta gehiago interesatzen zaidala idazkera, idazlearen ahotsa. Ez zait inporta istorio polita edo korapilatsua den, intriga duen ala ez. Interesatzen zait idazleak nola hitz egiten duen. Nire ustez literatura horretan datza, batez ere, eta ez hainbeste istorioetan. Istorioak, komiki batean, telesail batean, kantu batean, forma askotan eman baitaitezke. Literaturak berezkoa daukan osagarri formal hori interesatzen zait.

Zein da zure bizitzako sintonia?

Orain arte beste batzuk eduki ditudan arren, oraintxe bertan eduki nahiko nukeena da *Don't worry be happy*, baina ez dakit hala den.